

<b>Ekipoa</b>	<b>Ibilgailu elektrikoa</b>
<b>Kodea</b>	D-4028
<b>Ingurumen-hobekuntza</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Motorrak igortzen duen zarata murriztea.</li> <li>- Energia primarioa aurrezten da.</li> <li>- Emisio kutsatzaileak murriztea.</li> <li>- Tokiko emisiorik (<i>tail-pipe</i>) ez dago.</li> </ul>
<b>Honetan datza:</b>	<p>Motor elektriko bat edo gehiago dituzten ibilgailuak dira, eta metaketa elektrikoko ekipo bat, sare elektrikora entxufatuta kargatzen dena, haien energia-iturri bakarra da. Horrenbestez, ez dute motor termikorik, ibilgailu hibridoek (HEV) eta hibrido entxufagarriek (PHEV) ez bezala.</p> <p>Teknologia horrek, turismoak ez ezik, beste ibilgailu batzuk ere funtzionarazten ditu; adibidez, motozikletak, scooterrak, eta golf-zelaietan eta beste toki batzuetan erabiltzen dituzten «orgak».</p> <p>Gaur egun saltzen diren turismo elektrikoaren autonomia nominalak 120– 483 km-koak dira, eta elektrizitate metatua 11–70 kW/h-koa izaten da. Modeloen arabera, 9–16 kW/h-ko karga behar du bateriak 100 km-ko autonomia izateko. Ibilgailu elektrikoaren batez besteko kontsumoa 13,78 kW/h-koa da 100 km-ko. Kargatzeko behar den denborari dagokionez, modeloen arabera aldatzen da. Kasu batzuetan, 4 orduetan karga daitezke; beste batzuetan, 8 orduetan. Modeloren batek karga azkarrak egiteko aukera ematen du (ez % 100ekoak) ordu bate baino gutxiagoan.</p> <p>Horrenbestez, ibilgailu elektrikoaren ezaugarri bereizgarria da metaketa elektrikorako sistemaren mende dagoela, eta ezaugarri hori da, hain zuzen, teknologia horren elementu kritikoa, autonomiari, pisuari, eta erabakigarria den kostuari begira.</p> <p>Gaur egun ioi-litio teknologiak dira aurreratuenak eta erabilienak.</p>
<b>Zein sektoretan aplikatu daitezkeen</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Taxiak.</li> <li>- Enpresako ibilgailuak.</li> <li>- Alokatzeko ibilgailuen flotak.</li> <li>- Erakunde publikoen flotak (udalak, aldundiak eta abar).</li> </ul>